



BARREN

TOKIKOM

Trinitateak ate joka





LASA

jatetxea



"Mas Gastronomía" sariaren irabazlea 2009an,
BANKETEETAKO GIPIZKOAKO JATETXE ONENA sailean.
Era guztietako banketeak ospatzeko toki bikaina

Ozaeta Jauregia- BERGARA
TEL. 943 761 055 - Fax.: 943 762 029
www.restaurantelasa.es

JUAN LUIS MUGERTZA

Idazlea



Hartu gogoetarako denbora-edo

egunean, berdin-berdin dena han.

Bortizkeria modu zakarrean aritu da atearen kontra eta etxeok eraman ditu, baina barruko begirada goibela ez. Gizaki zuzenek aukeran laua dute nahiago aldapa baino, baina ez dira konturatzen inoiz ez direla puntako txirringulariak izango.

2065, zenbaki polita, eta maitagarria. Kafe-esnearen bitsan murgildutako azukre-aletxoak alferrik aritu dira sorosleri laguntza eskatzen, goilareak sortutako zurrunbiloak gupidarik gabe edalontzi sakonera gozo-gozo eraman baititu.

Eskolako teilatuaren hegalean hiltzera kondenatutako baloiak oraindik ez du itxaropenik galdu, askatasun-ostikada nork emango dion amesten baitago. Dutzatu ostean beti dago tantatxoren bat gudetan bezala esku oihaletik bizirik gelditzen

dena, ikusitakoa kontatuko duena.

Gaur tabernan ikusi zaitut, eta begiratu egin didazu eta nik, badaezpada, zure begirada poltsikoan gorde dut.

Idazmahaian makurtuta zeundela zure kuleroak ikusi ditut, eta orain badakit gorriak dituzula. Badakit gaizki egin dudala, baina nik ez dut dena ondo egiten.

Gaur ere postontzia zabaldu dut, baina hutsik zegoen, eta postaria oportetan imajinatu dut.

Amodio festaren ajea. Aparkalekue-tan, edozein modutan, sakabanatutako ezpain-zapi umelak, itxura barik, sapoen antzera ernaldu nahirik, oraindik dabilta saltari.

Kanpaia jotzeak eta poemak idazteak elkarren antza dute, ene ustez. Biek irudiak dituzte gogoko, eta erritmoa, ordena, desordena..., eta nola ez, bu-ka-er-a.

Umea nintzenez, bakeroekin bat eginda, apatxeen aurka egiten nuen; orain, nagusitan, damu dut egin izana, orduan emandako laguntzak munduan egiten dituzten sarraskiak egiteko balio baitu.

Hildakoen familiarrek esanda, abiado-reak bazekien umetxo askoren hiltzaile zela, baina begietatik urrun zegoenez, eta bihotzetik urrunago, ez zuen erruki handirik.

Leherketa hemen, hor... Hurrengo

“Eskolako teilatuaren hegalean hiltzera kondenatutako baloiak oraindik ez du itxaropenik galdu, askatasun-ostikada nork emango dion amesten baitago”



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Euzko Legeburuaren Argitaletxea

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENeK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarki lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENeK ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuiztak atale-tan adierazitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalao Amaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ander Soraluze, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldeg, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:

ELGOIBAR
UDOLA
AYUNTAMIENTO

LAGUNTZAILEAK:

MENDARO
2008

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Amaia Egiguren Agirregomezkorta

2019ko ekainaren 11n hil zen

*Atarian utzi duzu udara
gogoan dugu zure barre algara
zure begirada gabe geratu gara
baina zu gure bihotzetan biziko zara.*

Zure lagunak




Ekainaren 10ean hil zen Donostian, 82 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

Maite Bereziartua Garmendia

- Goian bego -

*“Zure ipuinekin lokartzen ginen,
eta barruan zeneukan bizi-pozarekin piztu.
Orain, ordea, gure ipuinekin lokartu zara,
eta gure oroimenak piztuko zaitu.
... egizu amets, amonatxo... Betirarte!”*



Zure bilobak: Maialen, Xabi, Ibon, Beñat eta Hodei
DONOSTIA, 2019ko ekainaren 14an



IV. URTEURRENA

Garbiñe Iriondo Aristondo

2015eko ekainaren 13an hil zen, 47 urte zituela.

*Udaberriarekin batera, urtero bezala,
ekainaren hamahirua utzi dugu atzean.
Gugandik joan zinen arren, Garbiñe maitea,
eman zenigun maitasuna dago gure artean.
Begirada eta irribarre eder haiek
betirako ditugu gure bihotzean.
Zure oroitzapenak gurekin dirau
mendian landaturiko haritzean.*

Zure kuadrilla



Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus - 943 744 112




Herrigunean autoak norabide bakarrean ibiltzeak traba handiak eragiten ditu: “Bernardo Ezenarro kalea norantza bakarrekoa izateak traba handiak eragiten ditu. Adibidez, Santa Ana kaletik Aita Agirre plazara joateko, IMHraino joan beharra dago, eta Trenbide kaleko bizilagunak garajera sartu nahi badute, San Rokera igo behar dira lehenengo. Eta bestela, errepide nagusira irten behar dira. Helburua oinezkoei lehenetasuna ematea bada, trafikoa debekatu beharko litzateke herrigunean, baina zentzu bakarrekoro nantzak ez du ezer konpontzen, trabak besterik ez ditu sortzen”.



Santa Ana kaleko jarleku hauek ez ditu inork erabiltzen: “Elgoibartar guztioi hitz egin nahi dizuet: Herri erdigunean nagoen parkea naiz. Jarleku hotzak eta deserosoak jarri dizkidate, eta ondorioz, inork ez nau bisitatzen. Hauteskundeetan ere inork ez da nirekin akordatu. Eibarrerako bidegorria egiten dutenean, ni izango naiz jendeak ikusiko duen lehenengo gunea. Gustatuko litzaidake jendeak ni jantzeko ideiak edo proposamenak egitea. Zer iruditzen? Egingo al ditugu denon artean gune honetarako proposamenak?”.



Hauteskunde kanpainako kartelak kentzeko ordua da: “Hiru aste pasatu dira hauteskundeetatik, eta oraindik herriko horma pila batetan ikus daitezke hauteskunde kanpainako kartelak. Bada kartel horiek kentzeko ordua! Kartelak pegatzeko alderdi politiko guztiak agertzen dira prest, baina gero hormak garbitzea ez zaio inori gustatzen”.




IV. URTEURRENA

Garbiñe Iriondo Aristondo

2015eko ekainaren 13an hil zen.

***Izan zarena, erakutsi duzun kemena,
gure artean geldituko da zugandik jasotako dena.***

Etxekoak



Bihar izendatuko dituzte Elgoibarko eta Mendaroko alkateak, Udal Gobernuak osatzeko udalbatzaren ezohiko saioan

Hauteskundeak egin eta hogeigarren egunean osatzen dira Udal Gobernuak helegiterik izan ez den kasuetan, eta beraz, Elgoibarren eta Mendaron, bihar izendatuko dituzte alkateak, Udala osatzen den egunean bertan aukeratu ohi delako herriko agintari gorena ere. Udalbatzaren ezohiko bilera hauek publikoak dira, eta beraz, edonork dauka zuzenean jarraitzeko aukera. Elgoibarren, 12:00etan hasiko da bilkura, eta Mendaron, ordubete beranduago, 13:00etan. Bozketa bidez aukeratzen da alkatea. Lehenengo bozketan gehiago osoa lortzen duena izendatzen dute alkate, eta gehiago osoa inork lortzen ez duenetan, hauteskundeetan boto gehien lortu zituen zerrendako lehen hautagaia izendatzen dute alkate. Berdinketa egonez gero,

berriz, zozketa bidez aukeratuko lukete alkatea. Eta hauteskundeetako emaitzei erreparatuz gero, aukera ezberdinak daude. Elgoibarren, EAJrena izan zen zerrenda bozkatuena, 2.629 botorekin. Hala ere, gehiago osoa galdu zuen EAJk, zinegotzi bat galduta, eta Elkarrekin-Podemos sartu zen Udalean. EAJk zortzi zinegotzi lortu zituen, EHBilduk zazpi, eta bana PSE-EEK eta Elkarrekin Podemosek, eta beraz, ezustekorik ezean Ane Beitiak jarraituko du alkate izaten. Mendaron, berriz, EHBilduk batu zituen boto gehien, 451, baina zinegotzitan EAJrekin berdintuta gelditu zen. Bosna zinegotzi eskuratu zituzten EHBilduk eta EAJk, eta bat, PSE-EEK, eta horrenbestez, Mari Jose Telleria PSE-EEren zinegotziaren botoa erabakigarria izan daiteke biharko bozketan.

Juanita Loiola omendu dute Mendaron, ikastolako lehenengo irakaslea



Juanita Loiola (Mendaro, 1956) andereñoa omendu zuten zapatuan Mendaron, Ikastolaren Eguneko ospakizunen barruan. Guruzpe kultur elkarteok proposatu zioten andereño izatea, artean 16 urte baino ez zituela. Frankismo garaia zen, eta klandestino zen ikastola. Geroztik 47 urte egin ditu irakasle, eta ikasturte amaierarekin batera hartuko du erretiroa, 63 urterekin. Zapatuan, Mendaroko ikastolaren alde egindako lana eta euskara suspertzeko egindako ahalegina eskertu zioten Arno Guraso Elkarteak eta herritar talde batek antolatutako ekitaldian. Txalapartarekin hasi zuten omenaldia, eta agurraren ostean, propio ekitaldirako sortutako bideo bat ikusi zuten. Argazki-sorta bat eta herritarrek idatzitako zorion-mezu eta irudiekien osatutako liburuska bi ere oparitu zizkieten. Ekitaldiaren laburpena ikusteko: www.barren.eus.

Organo emaileei esker ona agertu die Alcer elkarteak

Organo Emaileen Nazioarteko Egunaren harira, informazio mahaia jarri zuten zapatuan Elgoibarren Alcer elkarteok. 40 bat urte dira Alcerrek egun hau antolatzen duela, organoak ematen dituzten anonimoei errekonozimendua egiteko, eta organo premiaz ohartarazteko. Organoak ematea bizia ematea dela nabarmendu zuten, eta herritarren horren kontzientzia hartzeko eskatu. Espainia liderra da organu transplanteetan.



23 tabernak hartuko dute parte aurten Elgoibarko Pintxo Lehiaketan



○ stalaritzan euskararen erabilera sustatzeko, eta bide batez, Elgoibarko gastronomia suspertzeko pintxo lehiaketa antolatu du Udalak, eta aurten, 23 tabernak hartuko dute parte. Ekainaren 19an, 20an eta 21ean izango da lehiaketa. Pintxoa 1,40 euroan salduko dute, 19:00etatik 22:00etara, eta herritarrek euren pintxo gogokoena hautatzeko aukera izango dute. Udalak hiru sari banatuko ditu: epaimahaiak zehaztutako pintxorik onena eta bigarren sailkatua, eta herritarrek tabernetan betetzen dituzten boto-orrien zenbaketatik aterako dute herritarren pintxorik gustukoena. Botoak ematen dituzten herritarren artean bi lagunentzako dastatze menua Belaustegi jatetxean zozketatuko dute. Epaimahaia gastronomian adituek osatuko dute. Nabarmentzekoak dira, besteak beste, Mireia Alonso, gastronomoa eta sukaldaritza tradizionalan eta aprobeixamendu-sukaldaritzan aditua; Iñigo Kortabitarte, sukaldaria, Kobika jatetxeko sortzailea eta beste batzuen artean, Iron Chef by Makro de Miniature Pintxos Congress 2018ko irabazlea eta Josu Mugerza, sukaldaria eta Belaustegiko ugazaba.

Mekan egin duten ibilgailu elektrikoa saritu dute Euskelec txapelketan

Euskadiko Lanbide Heziketako ikastetxeentzako ibilgailu elektrikoek Euskelec txapelketan lehen saria jaso du Elgoibako Meka lanbide eskolak aurkeztutako ibilgailu elektrikoak, turismo kontzeptu kategorian. Meka lanbide eskolako automoziko ikasleek eta



irakasleek sortutako ibilgailua da, Soldadurakoen eta Galdaragintzakoen laguntzarekin, eta diseinu aldetik kaleko ibilgailu baten ezaugarri antzerakoak dituen ibilgailuentzako garaikurra jaso du. Besteak beste, ibilgailu elektrikoek arloko etorkizuneko teknikariak prestatzea da Euskelec txapelketaren helburuetako bat.

Bihar zabalduko dituzte Mintxetako igerilekuak

Bihar hasiko da uda denboraldia inguruko hondartzetan, eta baita Mintxetako igerilekuetan ere. Hiru hilabetez egongo dira zabalik aire libreko igerilekuak, irailaren 15era arte hain zuzen ere, asteleheneetik barixakura, 11:00etatik 20:30era, eta asteburuetan eta jai egunetan, 10:00etatik 20:30era. Abuztuan eta irailean itxiera ordutegia 20:00etara aurreratuko dute, eta Txiki Egunean itxita egongo dira. Sarreraren prezioan ez da igoerarik izango. 18 urtez gorakoek 6 euro ordaindu beharko dute, eta 18 urtez azpikoek, berriz, 4 euro.

Transexualitateari buruzko hitzaldia, gaur

Ekainaren 28an sexu askatasunaren nazioarteko eguna da, eta horren harira, hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Horietako lehenengoa gaur izango da: Ander Iriarte transexual gazteak hitzaldia emango du Kultur Etxeko hitzaldi gelan, 19:00etatik aurrera. Uztailaren 1era bitartean, beste zenbait ekitaldi ere egingo dituzte, besteak beste, bideo baten aurkezpena, elkarretaraztea eta sexualitateari buruzko hitzaldi bat egongo dira.

'Alzheimerrarekin elkar-bizi' hitzaldia, astelehenean

Alzheimerrarekin elkar-bizi hitzaldia antolatu dute astelehenerako Afagi Gipuzkoako Alzheimerdunen Elkarteak eta Jubilatuen Biltokiak. Afagiko Felix Peña eta Koldo Aulestia izango dira hizlariak, eta Begoña Elizondo Debabarreneko Afagiko kideak egingo ditu moderatzaile lanak. 17:30ean izango da hitzaldia, jubilatuen biltokian bertan. Doan izango da, eta edonor joan daiteke.



Udal Musika Bandaren kontzertu bereziarekin hasiko dira gaur Trinitateak Elgoibarren, eta Bizi Poza txarangarekin, Mendaron

Trinitate jaiak ospatuko dira Elgoibarren eta Mendaron asteburuan, eta bete-betea dator egitaraua. Ospakizunak gaur hasiko diren arren, ekitaldi gehienak larunbatean eta igandean pilatuko dira Elgoibarren, eta igandean eta astelehenean, Mendaron.

- AINARA ARGOITIA -

ELGOIBAR

Udal Musika Bandaren kontzertuarekin hasiko dituzte gaur ospakizun handiak, Elgoibarren. Duela lau urte ekin zion Udal Musika Bandak kalean kontzertu bereziak emateari, erakusteko euren jarduna ez zela hilerio Herriko Antzokian ematen dituzten kontzertuetara mugatzen, eta harrera beroa egin diote beti herritarrek. Rock estiloko kontzertuak izan ziren aurreneko hirurak, baina gaur, San Bartolome parrokiako eta Soraluzeko Ezoziako abesbatzarekin batera arituko dira. Soinu eta argiekin apaindutako ikuskizuna izango dela aurreratu dute antolatzaileek, eta bihar egingo den danborradari keinuren bat ere egingo diotela zehaztu dute. Kalegoen plazan izango da kontzertua, 22:30ean hasita. Aurrez, 19:00etan, Musika Eskolako ikasleek ikasturte bukaerako kontzertua emango dute Maalako parkean.

Bihar, zapatua, egun handia izango da Elgoibarren. 11:00etan, Debemenek antolatuta, Kalitatezko produktuen dastaketa egingo da Lekuederren jarriko duten karpan. Lumagorri oi-laskoak eta aire librean hazitako Basatxerri txerrien saiheski eta hirugiharra jan ahal izango da, eta baita Elgoibarko baserrietako sagardoa dastatu ere, sagardo lehiaketa antolatu duelako Zazpiki Kultur Elkarteak. Herri kirolen atarikoak izango da hori, 13:00etarako, Emakumeen Euskadiko Trontza txapelketa iragarri baitute.

Sigma Probaleku Elkarteak antolatu du, Euskadiko Herri Kirol Federakundearen eta Udalaren laguntzaz, eta Kalegoen plazan izango da saioa. Hiru bikote arituko dira: Itxaso Onsalo eta Leire Astiazaran nafarrak, Ainhoa Iraizoz eta Maria Iraizoz nafarrak eta Ainize Perez eta Iraitz Idoeta bizkaitarrak, eta etzanda jarritako 45 ontzako enborrean hamar epai egin beharko dituzte. Txapelketa hasi aurretik, baina, 12:30ean, Idoia Etxeberria eta Karmele Gisasolak harri-jasotze erakustaldia egingo dute. Antolatzaileek aurreratu dute Idoia Etxeberriari agurra egiteko ere baliatuko dutela ekitaldia.

Ondoren, 14:30ean, Elgoibarko baserriarren anaiarteko bazkaria egingo da Lekuederreko karpan, eta horrekin emango zaie azkena goizeko ekitaldiei. Arratsaldean, 18:00etatik 19:30era, kalejiran irtengo dira Mauxitxa txarangakoak Kalegoen plazatik, panpin erraldoiek lagunduta. 22:00etan, berriz, Uztari Motzeko Trinitate Sariaren lehenengo saioa jokatu dute, Sigmako probalekuan. Eibarko Altzubarrenen eta Mendigoitiren eta Azkoitiko Isidro Erretegiaren idiak ibiliko dituzte lehiari, 600 kilo azpiko idiak. Harriak, berriz, 1.000 kilo izango ditu, eta 600 kilotik pasatzen diren idiei kiloko kilo t'erdiko gainkarga gehituko diete.

23:00etan, eta urteetako tradizioari jarraiki, nagusien danbo-

rradaren ordua izango da. Udal Musika Bandak lagunduko du danborrada. Aurten, Elgoibarko kirol eskaintzari gorazarre egingo diote, Elgoibar Europako kirol herri izendatu dutela-eta. Aurreko urteetako ibilbide bera egingo du danborradak. Danbor eta kupel joleak, kantinerak eta gastadoreak Merkatu Plazatik irtengo dira, eta Kalegoen plazan elkartuko dira gainerako kideekin. Handik abiatuko dira gero kalean behera, soldadu eta sukaldariz jantzitako bi erraldoi aurretik dituztela. 00:30 aldera iritsiko dira plazara, eta goizaldeko 01:15ean bukatuko dute ibilbidea, Merkatu plazan, su artifizialekin eta bukaerako trakarekin. Ordu horretan kontzertuan izango dira Gaztetxean, 00:00etan hasiko baita Parapas taldearekin erromeria.

Zapatua bezain bete izango da domeka ere, Trinitate Eguna. Udal Txistularien Taldearen dianarekin hasiko da eguna, 9:00etan, eta 10:00etatik 14:30era, artisauen lanak ikusteko aukera izango da Lekueder plazan. Tarte horretan izango da meza nagusia ere, 10:00etan, Parrokiako Abesbatzakoek lagunduta.

12:00etan, danbor eta kupel hotsak hasiko dira herrian. Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolak antolatuta, ehunka ume irtengo dira danborradan. Arratsaldean, berriz, 17:30tik 19:00ak bitartean, erraldoi, buruhandi eta zezenzikletak ibiliko dira kalean, Elgoibarko dultzaineroekin batera. Aurten, baina, berrikuntza bat izango da, Lekueder parkea buruhandirik gabeko gunea izendatu dutelako. Astelehenean bukatuko dira Trinitate jaiak Elgoibarren, Uztari Motzeko Trinitate Sariak idi-dema txapelketako bigarren saioarekin. 22:00etan izango da hori, eta hiru idi lehiatuko dira: Billelako Lopategirena, Erreteriko Patxi Irarretarena eta Aizarnazabalgo Altunarena. 600 kilotan sartu beharko dira idiak eta pisuan sartzen ez denari kiloko kilo'terdiko gainkarga jarriko diote. Harria, berriz, 1.100 kilotakoa erabiliko dute. Pisuzkoak izango dira sariak ere. Irabazleak manta eta 1.000 euro jasoko ditu. Bigarren sailkatzen denak, 900 euro eskuratuko ditu eta 800 euro, hirugarrenak. Laugarrena, bosgarrenak eta azkenak ere jasoko dute, hala ere, saria 700, 600 eta 500 euro, hurrenez hurren.

MENDARO

Mendaron ere jai handia da Trinitate. Bizi-Poza txarangak hasiko ditu gaur jaiak, Trinitate bertatik kalejiran irtengo direlako gaur, 19:30ean. Bihar, zapatua, zuhaitza jasoko dute baseliza aurrean, 17:00etan, eta kanpai errepikarekin eta etx-fuegoekin hasiko dituzte ofizialki jaiak. Domekan eta astelehenean batuko dira, baina, egitarauko ekintza gehienak. Trinitate Eguna da domeka, egun berezia mendarorarentzat. Goizeko hamarretan txistulariak irtengo dira kalejiran, eta ondoren, 11:30ean, meza nagusia ospatuko dute Trinitaten. Elizako abesbatzak, Ameikutz Musika Eskolako abesbatzak eta txistulariek lagundutako meza izango da. Elizkizunean, joan zen astelehenean hil zen Angel Bazterretxea izango dute gogoan, eta haren omenez, *Txoriak txori* eta *Xalbadarren heriotzean* kantuak abestuko dituzte bertaratutako guztiek. Angel Bazterretxeak 54 urte egin zituen Mendaron abade eta abadetzari ez ezik herri-gintzari eman zion bere bizia. 1962an iritsi zen Saturrarango abade-etxetik eta 2016ko azaroan hartu zuen erretiroa. Mendarorrek estimutan zuten Bazterretxea, herriaren eta herritarren alde egindako lanagatik, eta esker ona agertuko diote berriz. Meza ostea trikitilariak girotuko dute, eta ondoren, herri kirol saioa izango da, usadioa den legez.

Astelehenean, berriz, Trinitate Txiki eguna ospatuko dute Mendaron. 11:00etan izango da meza, eta ondoren, Mendaroko Ikastolako haurren bertso emanaldiaz gozatzeko aukera



izango da. Bertsogintza plazaratzeko asmoz urtero egin ohi dute saio hau Mendaroko ikastolako neska-mutiek. [Ikastolangu ere bertsoan programa lantzen dute Gipuzkoako Bertsolari Elkartearekin batera eta Udalak finantzatuta]. Bertso-saioaren ostean, Jon Ansozregi eta Andoni Larrañaga trikitilarien txanda izango da, eta haiek girotuko dute eguerdian Toki Alai jatetxean egingo den bazkaria ere. Iluntzean, berriz, afari herrikoia izango da Aizpe elkartean ere, baina joan nahi duenak txartela erosi beharko du aurrez. Toki Alain, Aitz-Beltzen eta Txirristakan jarri dituzte salgai txartelak 25 eurotan, eta igandean bertan ere egongo da erosteko aukera. Afaria ere Jon Ansozregi eta Andoni Larrañagak girotuko dute.



“Bizilagunen segurtasuna bermatu behar du Udalak”

► MIREYA CEARSOLO ARRIAGA AUZOKO BIZILAGUNA

Urte asko eman ditu Elgoibartik kanpora, baina sortzez Arriaga auzokoa da Mireya Cearsolo (Elgoibar, 1964). 2017an itzuli zen berriz etxera, Elgoibarrera, Arriaga auzora, hain zuzen ere, eta berehala konturatu zen bere auzoan bizitzea arriskutsua zela. Lanera joateko autobusa hartu behar izaten du egunero, eta baita bere alabak ere, eskolara joateko. Errepidearen beste aldean dute autobus geltokia, eta trafiko handia dagoen orduetan errepidea gurutzatu ezinda ibiltzen dira, autoak “ziztu bizian” ibiltzen direlako gune horretan. Botoidun semaforo bat edo beste edozein modutako pasabide seguru baten beharra ikusten du, errepidea segurtasunez gurutzatu ahal izateko. Udalera jo zuen lehenengo arazo honen berri ematera, baina handik Foru Aldundira bideratu zuten, errepideak Udalaren eskumena ez direla esanez. Foru Aldundian esan zioten teknikoki eta ekonomikoki ez zela posible berak eskatzen zuena egitea, autobus geltoki horrek erabiltzaile gutxi zituelako. Arartekoarengana ere jo du, baina honek ere ez dio babesik eman, ontzat jo dituelako Aldundiak eman zizkion arrazoiak. Protestak hasi ditu, eta hilero egiteko asmoa dauka. Plataforma bat ere sortuko du, Arriagako arazoa bistaratu eta herritarren babesa lortzeko. Bere ustez agintarien egitekoa da herritarren segurtasuna bermatzea, eta horixe eskatzen dio Elgoibarko Udalari.

AINHOA ANDONEGI

◆ Noiz hasi zineten Arriaga auzoko bizilagunak errepidea modu seguruan gurutzatzeko neurriak hartzeko eskatzen?

2012an hasi ziren. Ni orduan kanpoan bizi nintzen, baina badakit auzotarrak ibili zirela segurtasun neurriak eskatzen. Ni 2017an etorri nintzen berriz Elgoibarrera, Arriaga auzora. Lanera joateko autobusa hartu behar izaten dut, eta konturatu nintzen askotan autobusa galtzen nuela, autobus gidariak ez ninduelako ikusten autobus geltokian. Errepidera irten beharra izaten nuen, Unceta enpresara sartzeko erreilera, eta autobus gidariari eskua-ekin keinua egin behar izaten nion, geratzeko. Lurraldeusera jo

nuen, eta lortu nuen autobusak autobus geltokitik pasatzea, eta norbait ikusten bazuen, geratzeko, jakina. Baina berehala ikusi nuen autobusa hartzea baino arriskutsuagoa zela errepidea gurutzatzea. Ordu jakin batzuetan trafiko handia ibiltzen da inguru honetan, eta lau errail gurutzatu behar izaten ditugu autobus geltokira iristeko. Udalera jo nuen, nire kezka eta ezinegona azaltzeko. Esan nien egunero bizia arriskuan jartzen gurela errepidea gurutzatzerakoan, eta mesedez, neurriren bat hartzeko eskatu nien. Errepideak ez direla beraien konpetentzia erantzun zidaten; hori Foru Aldundiaren ardura zela.

◆ Foru Aldundira jo zenuen ondoren.

Bai, ez nuen amore eman, eta Aldundiarekin jarri nintzen harremanetan. Bideo eta argazki pila bat bidali nizkien, ulertu zezaten zein zen benetan arazoa. Halako batean iritsi zen Aldundiko erantzuna, eta esan zidaten teknikoki eta ekonomikoki ez zela posible gune horretan botoidun semaforoa jartzea. 30.000 euro inguruko kostua izango luke semaforo batek, eta beraien datuen arabera, egunean batezbeste 16,5 lagunek "bakarrik" hartu zuten autobusa Arriagako geltokian 2017an. Horrelako neurriak hartzeko, egunean 150 bat erabiltzaile beharko zirela esan zidaten. Hala ere, hobekuntza batzuk egin zituzten: Errailak estutu eta errepide erdian babes moduko isleta bat jarri zuten, errepidea bi kolpetan gurutzatzeko; abiadura 50 kilometro ordura mugatu zuten, eta oinezkoekin kontuz ibiltzeko seinaleak jarri zituzten. Gero esan zidaten isleta horri muga edo tope batzuk jarriko zizkietela, eta hori bera arriskutsuagoa iruditzen zait.

◆ Neurri horiek ez zitzaizkizun nahikoak iruditu, eta Arartekoarengana jo zenuen, baina hark ere ez zaitu babestu. Zein izan da erantzuna?

Arartekoak ontzat eman ditu Foru Aldundiak egin zituen hobekuntza lanak. Neurri horiek, baina, ez dira nahikoak, autoek ez dutelako abiadura hori errespetatzen, eta babes isleta hori barre egiteko modukoa delako, kamioi handiek etengabe zapaltzen dutelako. Irudikatu ezin diren egoerak bizi izan ditut, eta benetako beldurra pasatzen dut egunero. Hori bai dela terrorismoa.

◆ Kontaiguzu zein izan den bizi izan duzun egoerarik larriena.

Hirugarren pisuan bizi naiz, eta nire leihotik begira egoten naiz goizero, nire alabak bidea gurutzatzen duenean. Eskolara joateko autobusa hartu behar izaten du goizero, eta egunero-egunero alabaren bizia arriskuan ikustea jasanezina da. Joan zen neguan, ilun zegoen goiz batean, alabak irrist egin zuen eta lurrera erori zen, errepidean. Eskolako motxila zeraman soinean, pisu handiko motxila, txamarra... Ezin zen jaiki, eta nik leihotik ikusten nuen autoa zetorrela. Sekulako garrasiak egin nituen balkoitik, baina alperrik zen, auto gidariek ez nindutelako entzuten. Ba auto hura industrigunera sartu izan balitz, nire alaba hilko zuen. Bada-kizu hori ikustea ama batentzat zer den?. Egun horretan bertan alkatearekin topo egin nuen kalean, eta gertatutakoa kontatu nion, baina ez zidan inolako aurrerabiderik eman. Bera ere ama da, eta ama bezala uler nazala eskatu nahi diot, behintzat. Bere seme-alabak egunero arriskuan ikusiko balitu ez luke ezer egingo?.

◆ Borroka honetan zu zabilta aurrean, baina badaukazu gainerako bizilagunen babesik?

Bai, badaukat. Egia da askok autoa dutela eta ez dutela bizi nik bizi dudana, baina denek ikusten dute arriskua dagoela. Nire etxepeko bikote batek bere etxea utzi eta berrira joan behar izan du bizitzera. Gizo-

nak mugikortasun arazoak ditu, eta behin baino gehiagotan erori izan zen errepidea gurutzatzen. Azkenik bizitokia aldatzea erabaki dute. Beste batzuk baratza daukate han inguruan, baina autoz joan behar izaten dute, oinez joatea arriskutsuegia delako. Enpresak ere badaude han, eta hango langileek ere badakite hau zer den. Sinadura bilketa bat egin nuen, eta 120 inguru lortu nituen.

◆ Eman beharreko pausoak emanda, zure eskaera berriz ere Udalari bideratzen diozu.

Bai, badakit Foru Aldundiaren kompetentzia dela, baina uste dut Udalak presioa egin dezakeela Aldundian, eta hori eskatu nahi diot. Arazo hau bere egin dezala eskatzen diot. Udalaren lehenetsuna izan behar da herritarren segurtasuna bermatzea. Arriagako auzokideak ez gara bigarren mailako bizilagunak, berdin-berdin ordaintzen ditugu zergak, eta gure biziak ere balio du. Elgoibar ez da bukatzen Mercadonan. Nork ez dakit, baina han berehala egin dituzte bidea gurutzatzeko zubia, errotonda eta autobus geltokia errotondan bertan. Argi dago hemen dena interesen arabera dela. Haserre nago, oso haserre. Gainera ikusi dut Udalaren aurrekontua 18,2 milioi eurokoa dela, eta hasi naiz begira zein proiektu egin behar dituzten eta gehiago haserretu naiz. 200.000 euro inguru Mintxetako ur parkea egiteko, beste horrenbeste lorategiak apaintzeko, 44.000 euro Urazandi eta Santa Klara arteko bidea egiteko... Ondo dago, herriak behar ditu horrelakoak ere, baina ez al da garrantzitsuagoa herritarren segurtasuna?. 30.000 euro gehiegizkoa da botoidun semaforo bat jartzeko Arriagan, baina herria apaintzeko badago dirua. Ez da justua. Arriagan oinezkoentzako pasabide segurua behar dugu.

◆ Protestak hasi dituzu, eta borrokan jarraituko duzu. Zein da zure asmoa?

Maiatzaren 23an egin genuen lehenengo protesta auzoan, eta nire asmoa da hilean behin egitea horrelako ekimenak, jendeak ikus dezan zein den arazoa. Plataforma bat osatzeko asmoa ere badaukat, eta sare sozialetan hasiko naiz gaia bistaratzen. Ez dakit ezer lortuko dudana, baina borrokan jarraituko dut. Udalak aintzat har nazan nahi dut, uste dudalako borondatearekin gure arazoa konpondu daitekeela.





1983

Aste honetako erretratu zaharra 1983ko ekainekoa da. Enpresen arteko Liga txapelketa jokatzen zen garai hartan, eta argazkian duzuen Sigma enpresako taldea da. Seigarren egin zuten urte hartako ligan, eta Kopa txapelketa irabazi zuten. Ikus ditzagun zein diren erretratuan azaltzen direnak. **Zutik:** Gorriti, Revert, Casmiro (eibartarra), Gabilondo, Perez, Sanchez, Lasa. **Behean:** Alfredo, Arregi, Etxaniz, Jimenez eta Panizo.



III. URTEURRENA

Mikel de Pablo Cid

2016ko ekainaren 14an hil zen, 30 urte zituela.

*Eskerrik asko, argi,
indar, irribarre,
berotasun eta
itxaropen izateagatik.*

Etxekoak

Haren oroimenez III. urteurreneko meza izango da, gaur, ekainaren 14an, 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

2020ko ezkontzetan ikusiko ditugun hamar joera nagusiak

Datorren urtean ezkontzekoa baldin bazara, ez galdu jarraian proposatuko dizkizugun ideiak, ez eta 2020rako joeren berri ere, ziur gaudelako aukera hauetako- ren bat ondo ezkon daitekeela zure estiloarekin. Azter itzazu Elgoibarren bertan edo Elgoibartik gertu dauzkazun aukerak eta proposamenak, eta egin ezazu zure ezkontza eguna ahaztezina. Ez zara damutuko!

Koloreak.....

Zuria edo arrosa kolore leuna moduko kolore monokromatikoetatik urruntzeko joera gero eta handiagoa da. Ez izan beldurrik zure ezkontzari kolorea emateko, kolore ukitu xumeak izanda ere asko irabaziko baitu. Sukaldeko tresneria originala erabiltzeko joerak ere indar handia hartu

AGURTZANE c.b.
ileapaindegia

Fotodepilazioa egiten dugu

Santa Ana, 18
20670 Elgoibar
Tel.: 943 741 864

Kala LORADENDA

San Frantzisko, 24
Elgoibar
943 744 516
kala.loradenda@gmail.com

MERAKI ILEAPAINDEGLA

943 246 225

FRANZISKOR KALEA, 20 - ELGOIBAR

Bauskain
FINCA

Markina Xemein
944 249 059
bauskain@grupoiruna.net
www.fincabauskain.com

Basoz inguratutako etxalde pribatua, askotariko ospakizun eta ekitaldietarako: ezkontzak, familia-bilerak, enpresa-bilerak...

Zure ospakizuna apartekoa egingo dugu, eta garrantzitsuena: ez duzu alokairurik ordaindu beharko.

IRVŪIA GRUPO
grupoiruña.net

Facebook, Twitter, Instagram icons



du: erliebedun edalontzi koloreztatuak, marrazki ezberdinetako platerak, mahai-zapiak eta ezpainzapi originalak... Sinpleago egin nahi baduzue, urre koloreko edo kolore bi-ziagoko mahai-tresnak edo zurezko kirtendun tresnak erabil ditzakezue, edota mahaiak luzezka jarri eta mahai-zapirik ez erabili.

Emaztegiaren soinekoa.....

Gero eta gehiago dira soineko klasikoaren ordez beste zerbait bilatzen duten emaztegiak. Originaltasunaren alde egiten dute, eta ezustekoa bilatu. 2020ak badakar aukera berririk emaztegi horientzat, bi piezako soinekoak esate baterako. Gorputz osoko jantzi motza tuldun gonarekin konbinatuta adibidez aukera ona izan daiteke. Soinekoaren ordez prakak ere ikusiko dira 2020an, eta kapak, ohiko buruko zapien ordez. Kolore ukituren bat duten soinekoak ere aukera ona dira berritzaile izan nahi dutenentzat.

Estiloa.....

Estilo errustikoa da urte osoan gehien erabiltzen dena ezkontzetan. 2020. urterako joera estilo errustikoaren ber-

tsioetako bat da: estilo naturala. Estilo honetan berde koloreak indar handia du, natura bere horretan erakustea bilatzen delako. Estilo errustikoko elementuak erabiltzen dira estilo naturalean ere: egurrak, detaile txikiak... Kartelak egiteko orduan, berriz, estilo minimalisten alde egingo da.

Gonbidatuentzako opariak.....

Gonbidatuentzako oparietan aukera zabala dago, eta joerak asko aldatzen dira. Gero eta joera handiagoa dago, baina, gauza erabilgarriak oparitzeko, bai eta ezkontza egunean bertan gonbidatuek osagarri gisa erabili dezaketen zerbait oparitzeko ere.

Grafika.....

Lehenengo begiratuan ez gara jabetuko idatziz emango ditugun testuetan erabiliko dugun tipografiaren garrantziaz, ez eta grafikak oro har duen garrantziaz ere. Askok pentsatuko dute ez dagoela horrenbesteko aukerarik, baina originala izateko aukerak asko dira. Ehun gainetan idatzi dezakegu, metrakrilatoan, paper mota ezberdinetan... Aukerak infinitoak dira. Aparteko ideia baten bila ari bazarete, hemen aukera bat: menua inprimituko du-



Muruamendiaraz

1935etik gozogintzan
www.muruamendiaraz.com

Gozatu ezazu zure ezkontza Muruamendiaraz gozotegiarekin!

- ▶ Etxez etxeko/enpresetarako banaketa asteartetik igandera Elgoibar eta Mendaron.
- ▶ Web orriari online erosteko aukera.

zuen orria ogiarentzako poltsatxoa edo lorez edo gozokiz bete ahal izateko moduko poltsatxoa izan daiteke.

Lorak.....

Lore-sorten tendentzietan koloredun lorak erabiltzeko joerak indarra hartu du, lehengo landare berdeen kaltetan. Hala ere, lore sortek basa ukitua izango dute, esan nahi da desordena zaindu bat mantenduko dela. Lar zaindu gabeko lorategi batetik hartutako lore-sorta baten itxura izango du.



Argiztapena.....

Argiztapenari gero eta garrantzi handiagoa ematen zaio ezkontzetan. Argidun hizkiak erabiltzea oso ohikoa da, eta datorren denboraldian neoizko argi pertsonalizatuak ere asko erabiliko dira. Era berean, arbolak eta sabaia argi ezberdinez argiztatzeko joera ere indar handia hartzen ari da. Argi ezberdinen bidez efektu magikoa sortzea izango da beti helburua.

Chill out.....

Chill out-a oso presente dago ezkontza askotan eta hu-

HAIR'S
ILEAPAINDEGI A
 San Bartolome, 6 behea
 Tel.: 943 53 12 79

ASTEARTEETAN
JUBILATUEN
EGUNA:

- Orraztu 9€
- Garbitu, moztu eta orraztu 18€

Leopantzia
Jurdes

Pedro Migel Urruzuno kalea, 10 - 943 256 105
Mimoz landutako orrazkerak

SERGIO NIEVAS (Argazkilaria)
 Urazandi, 9 behea - Elgoibar - **661 524 985**
 sergionievasweb@gmail.com

- * Ezkontza argazkiak, ezkontza aurreko argazkiak eta ezkontza ondorengo argazki saioak
- * Urteko eta familiareko argazki saioak
- * Book-a sortzeko saioak

Momentu magikoak betiketzen espezialistak
 Kima bioestetikako estetikari eta makilatzaile profesionalen laguntzari esker, oroimenean luzaroz iraungo duten argazkiak egingo ditugu.
 Etorri eta bisita gaitzazu!

KIMA BIOESTETIKA (Julia Quintana)
 Urazandi, 9 behea - Elgoibar - **646 563 706**
 kimbioestetika@gmail.com

- ▲ Argazki saioetarako makilaia
- ▲ Ezkontza egunerako makilaia
- ▲ Ezkontza egunerako estetika tratamenduen programazioa
- ▲ Gure tratamenduen produktuak beti kosmetika natural, organiko, jasangarri eta %100 beganoak izango dira.

KIMA

rrengo denboraldian dezentez ezkontza gehiagotan ikusiko dugu. Chill out espazioak gero eta gehiago zainduko dira. Dekorazioa asko zainduko da, eta espazio handi-
goak hartuko ditu chill out-ak. Chester besaulkiak, pallet-
ak, estilo modernoko aulkiak...

Sorpresa efektua.....

Gonbidatuak aho zabalik uztea erronka handia izan ohi da ezkontideentzat. Helburua hori da beti, gonbidatuei berri-
zailea den zerbait eskaintzea, baina ez da beti erraza. Dantza saioan inork espero ez duen zerbait sartzea, akro-
baziak egiteko gai diren koktelgileak eramatea, karikaturak egin ohi dituzten artistak kontratatzea, zuzeneko musika
jartzea... Aukera asko daude, eta norbere gustuekin bat datorrena aukeratzea izan ohi da onena, gonbidatuak ha-
rritzea bezain garrantzitsua delako norbera eroso sentitzea.

Dantza.....

Dantza-eremua da gutxien apaindu ohi dena, dekora-
zioa ez delako hor horren beharrezkoa. DJ-arentzako ohol-
tza tematika jakin baten arabera apaintzea aukera ona izan
daiteke berri-zailea izan nahi dutenentzat.



**OLAIA
MARTINEZ**
ESTETIKA ZENTROA

Trenbide kalea, 21 behe, ezk.
Elgoibar
943 242 805

EZKONTZETARAKO ESTETIKA PROGRAMA BEREZIA



Programatu itzazu Olaia Martinez estetikan zure ezkontza eguna baina lehenagoko egin beharreko estetika tratamenduak.

HILABETE LEHENAGO:

- ✓ Larruzal garbiketa
- ✓ Manikura eta pedikura oinarri bat sortu azken egunean
- ✓ gure esku eta oinak ezin hobe gera daitezen.
- ✓ Makillaje saio bat ezkontz soineko edo trajearekin nola doakigun frogatu ahal izateko.

ASTEBETE LEHENAGO:

- ✓ C bitaminadun esfolazio bilkina (eskote, beso eta bizkarrean argitasuna eta leuntasuna lortzeko)
- ✓ Depilazioa

EZKONTZ-EGUN BEZPERA:

- ✓ Ritual spa , relax masajea
- ✓ Bitamina C aurpegiko tratamendua (aurpegiak argitasun handiagoa lortzeko)
- ✓ Manikura eta pedikura

EZKONTZ EGUNEAN:

- ✓ Makillajea (etxerako zerbitzua ematen dugu, nahi izanez gero)

SOLARIUMA - GIZONEZKONTZAKO TRATAMENDUAK - MAKILLAJEAREN ETXENKO ZERBITZUA

" Zure ezkontza egunean inoiz baino ederrago "



Cristina Garcia

Estetika eta Terapia Naturalak

Errosario kalea 19 - 943 74 29 50 - cgestetika@gmail.com

- Manikura eta pedikura sesioak
- Aurpegi eta gorputzerako edertasun tratamenduak
- Alqvimia Errituak ...

Ilopaindegia eta estetika
Antonio Arrillaga, 6-8 behe
sarrera Santa Ana kaleak
Tel: 943744026
20670 EL GOIBAR






Idama

idamaileopaindegiaestetika@gmail.com



ARAMBURU

ETXEDENDA

San Frantzisko, 26
Tel./fax: 943 742 535



Ezkon-eratzunak diseinatzen ditugu.
Aukeratu ezazu zurekin ondoen ezkontzen den eratzuna
eta egin ezazu ahaztezin zure ezkontza eguna.

Belaustegi Baserria

JATETXEA

Aiastia auzoa z/g

Tel.: 943 743 102

20. urteurrena

Eskerrik asko elgoibartarroi!

Portxe-jardineko haiman bazkaldu edo afaltzeko aukera.



www.belaustegi.com


Aitor Mendiluzek irabazi du Elgoibarko I. Koplaldia



Elgoibarko I. Koplaldia egin zuten barixaku iluntzean Bolatokiko parkean, eta publikoak Aitor Mendiluze aukeratu zuten irabazle. Hamar bertsolari aritu ziren koplatan: Eli Pagola, Aitor Mendiluze, Onintza Enbeita, Miren Artetxe, Maider Arregi, Manex Agirre, Andoni Egaña, Odei Barroso, Aitor Bizkarra eta Uxue Alberdi. Ainhoa Mendibil eta Danele Sarriugartek jarritako gaiak eta puntuak erantzun zituzten bertsolariek saioaren lehen zatian. Bolatokiko lehen lerroetan eserita zeuden hogeit hamar lagunek eman zuten botoa hurrengo kanporaketara pasatzen ziren sei bertsolariak aukeratzeko. Bigarren kanporaketaren amaieran, publikoko beste hogeit hamar lagunek erabaki zuten finala jokatzeko merezi zuten bi bertsolariak zein ziren, eta Aitor Mendiluze (Andoain, 1975) eta Uxue Alberdi (Elgoibar, 1984) aukeratu zituzten. Alberdiri eta Mendiluzeri hiru ariketa jarri zizkieten finalean, eta beste hogeit hamar lagunek erabaki zuten nor zen irabazlea. Hiru orduko saioaren amaieran, Aitor Mendiluzeri eman zioten irabazlearen garaikurra: Aitor Etxeberria artista mendaroarrak Elgoibarko I. Kopladirako propio sortutako eskultura. Koplaz gain, musikak ere izan zuen lekua saioan. Sinuöse Kultur Elkarte kide Ander Mujika, Iban Urizar, Jon Gurrutxaga eta Patxi Zabaletak girotu zuten saioa zuzeneko musikarekin.

'Erraiak' dokumentala emango dute Tertuliak egitasmoaren ikasturtea amaitzeko

Erraiak dokumentala emango dute eguaztenean, 19:00etan, Kultur Etxean, Tertulien ikasturte amaiera iragartzeko. Dokumentalaren aurretik, elkarriketa egingo diote dokumentala zuzendu duen Ekain Martinez de Lizardui antropologo donostiarrari. Irrintzien gaineko dokumentala da. Kobazuloetatik datorkigun oihua da irrintzia. Entzun, sentitu eta kantatu egiten duguna. Hitzik gabeko hizkuntza. Erraietatik ateratzen zaiguna. Arbasoen oihartzuna. Baina noiztik dugu irrintzia gure artean? Hauek eta beste hainbat galderen erantzuna bilatzen duen ariketa da *Erraiak* dokumentala. Elgoibarko Izarrak, AEK eta Udal euskaltegiek eta Udalak antolatu dute saioa.



Ekigain jaia, gaur zortzi, Sallobenten

Udari ongi-etorria egiteko Ekigain eguna antolatu du Elgoibarko Izarrak, azken urteotako ohiturari eutsita. Gaur zortzi sartuko gara udan, eta egun horretan bertan egingo dute jaia, Sallobenten. Maalako parkean jarri dute hitzordua 19:00etan, denak elkarrekin oinez joateko Sallobentera. 20:30 aldera afari-merienda egingo dute. Norberak bere jatekoa eraman beharko du, eta edariak han erosteko aukera egongo da. 21:45ean hasiko da suaren erritua, eta 22:30ean, saltoak. 23:00ak aldera hartuko dute etxerako bidea.

Gararock jaialdiko kartela aurkeztuko dute gaur zortzi

Irailaren 21erako antolatu dute Gararock jaialdia, eta datorren barixakuan aurkeztuko dute antolatzaileek kartela. Ekainaren 21ean izango da, 18:30ean, Herriko Enparantzan. Gararock-en historian eragile izan zen Anjel Bazterretxea apaiza, eta aurtengo musika jaialdia hari eskainiko diote.

Euskara arloko diru-laguntzak onartu ditu Udalak

2019ko ekitaldirako hainbat diru-laguntza onartu ditu Udalak, euskararekin lotuta. Honakoetarako egongo dira laguntzak: Elgoibarko udal euskaltegia ez den besteren batean edo barnetegi batean ikasteko, UEUK, EHUK eta Hik Hasik euskara hutsean antolatzen dituen ikastaroak egiteko, establezimenduetako errotuluak euskaraz jartzeko, euskarazko irakaskuntzaren aldeko jaietarako, eta herriko enpresetan euskara bultzatzeko. Informazio gehiago, Herritarren Arreta Bulegoan.

28.550 euroko diru-laguntza emango dio Mendaroko Udalak Elgoibarko Izarrari, 2019an hainbat egitasmo gauzatzeko

Mendaroko Udalak eta Elgoibarko Izarrak 2019rako lankidetzaren hitzarmena sinatu dute. Hitzarmen horren arabera, 28.550 euroko diru-laguntza emango dio Udalak elkarteari, aurtengorako dituzten hainbat egitasmo laguntzeko. Euskara Sailetik bideratu dute laguntza. 14.550 euro BARREN astekariari emango dizkio, eta 14.000 euro Atxutxiamaikari, udako oporraldiko udalekuak antolatzeagatik. Sonia Garcia Mendaroko alkateak eta Iñaki Konde Elgoibarko Izarrako presidentek hartu zuten parte sinadura ekitaldian. Elkarteak eskerrak eman dizkio Udalari, eta aurrerantzean ere lankidetzan jarraitzeko bideak ematearen alde agertu dira bi aldeak.



Biraka dantza taldeak ikasturte amaierako jaialdiak egingo ditu Mendaron eta Elgoibarren

Biraka dantza taldeak Mendaron egingo du gaur gauean ikasturte amaierako *Birakatube* dantzaldia, 22:00etatik aurrera, Goñati frontoian. Mendaroko ikasleez gain, Eibar, Elgoibar eta Soraluzeako ikasleek ere hartuko dute parte. Guztira 180 bat dantzari irtengo dira jendaurrera, eta 21 dantza eskainiko dituzte. Elgoibarren, datorren astean izango dira emanaldiak, ekainaren 19an, 20an eta 21ean, 18:00etatik aurrera, Herriko Antzokian.



Ricardo Azkargorta bergararrak irabazi du aire libreko pintura lehiaketa

Egur Arte Tailerrak antolatuta, VIII. Kaleko Margo Lehiaketa egin zuten zapatu goizean Elgoibarko kaleetan. Hogei lagunek hartu zuten parte eta Ricardo Azkargorta bergararrak irabazi zuen. Goizean zehar Elgoibarrekin zerikusia zuen margolana egin beharko zuten guztiek, eta 13:00etatik 14:00etara entregatu behar zituzten lanak, Kultur Etxeko sotoan. Sotoan bertan egin zuten sari banaketa ekitaldia, eta sarituek losu Arraiz Hirigintza zinegotziaren eskutik jaso zituzten garaikurrak. Epaimahaiak Ricardo Azkargorta bergararrak aurkeztutako margolana saritu zuen lehen sariarekin (800 euro). Azkargortak Trenbide kaleko igogailu urdina eta trenbidea marraztu zi-



tuen. Esteban Oroz eibartarrak aurkeztutako lanak jaso zuen bigarren saria (500 euro) eta Jon Idigoras ermurrak aurkeztutako lanak hirugarren saria (300 euro). Alvaro Espigak jaso zuen herriko lanik onenaren saria (150 euro), San Fran-

tzisko iturria eta Kalebarren plaza ageri diren margolanari esker. Parte hartzaile guztien lanak Kultur Etxeko Sotoan egongo dira ikusgai, gaur arratsaldera arte. 18:30etik 20:30era bisitatu daitezke erakusketa.

Emakumezkoen Euskadiko Trontza Txapelketa jokatuko dute bihar Kalegoen plazan



Momentuko trontzalaririk onenak lehiatuko dira Elgoibarren, Emakumezkoen Euskadiko Trontza Txapelketan. Kalegoen plazan izango da, bihar (ekainak 15), 13:00etan hasita. Euskadiko Herri Kirol Federazioak antolatuko du Txapelketa, Elgoibarko Udalaren eta Sigmako Probaleku Elkartearen laguntzarekin. Hiru bikote lehiatuko dira: Itsaso Onsalo-Leire Astiazaran, Ainhoa Iraizoz-Maria Iraizoz eta Ainize Perez-Iraitz Idoeta. Nafarrak dira lehen bi bikoteak, eta bizkaitarrak, Perez eta Idoeta. Etzanda jarritako 45 ontzako enborrean 10 epai ebagi beharko dituzte. Trontza txapelketa hasi aurretik, 12:30ean, Idoia Etxeberria eta Karmele Gisasola harri-jasotzaileek erakustaldia egingo dute. Idoia Etxeberriari (Orio, 1992) eskerrak emateko ekitaldia egingo dutela jakinarazi dute Sigmako Probaleku elkarteak, hamabi urteko ibilbide oparoari agur esan eta erretiroa hartu baitu behin baino gehiagotan Elgoibarren erakustaldiak eman dituen harri-jasotzaileak. Bereak dira emakumezkoen markarik onenak.

Sara Carracelas igeriketa sarian lehiatu zen Guillermo Mauleon Eibar Igerixan taldearekin

Sara Carracelas Igeriketa Egokituko txapelketa jokatu zuten, ekainaren 1ean, Errenterriako Galtzarabordako kiroldegiko igerilekuan. 60 kirolari baino gehiagok parte hartu zuten, tartean Eibar Igerixan Igeriketa Egokituaren Taldeak. Taldekideetako bat da Guillermo Mauleon elgoibartarra (argazkian, ezkerrekoa), Javier Zuazo, Iñigo Ugarteburu eta Imanol Nietorekin batera. Mauleon bular estiloko bi probetan lehiatu zen, 50 metrokoan eta 100 metrokoan. Hamargarren aldiz jokatu zuten Sara Carracelas igeriketa saria, Oarsoaldea Igeriketa Kirol Elkarteak antolatuta, eta bertan, ahalmen urriko igerilariek hartu zuten parte, proba eta estilo ezberdinetan: librea, bizkarra, tximeleta.



Uztarri motzeko idi demak, estreinakoz Sigmako probalekuan

Uztarri Motzeko Trinitateetako I. Saria idi proba txapelketa antolatuko du Sigmako Probaleku elkarteak ekainaren 15erako eta 17rako. Demalariek idi bakarrarekin jokatzen dituzte uztarri motzeko probak. Sei demalari lehiatuko dira: Altzubarren (Eibar), Lopategi (Billela), Mendigoiti (Eibar), Patxi Iñarreta (Errenteria), Isidro Erretegia (Azkoitia) eta Altuna (Aizarnazabal). Idiek 1.100 kiloko harria mugitu beharko dute Sigmako probalekuan eta 600 kilotik gorako idiek, kiloko kilo eta erdiko gainkarga izango dute. Idien pisaketa proba egunean egingo dute, 10:00etan. Bi saioak 22:00etan hasiko dira. Guztira, 4.500 euro banatuko dituzte saritan. Demako irabazleak 1.000 euro eta manta jasoko ditu.

Lauko txapeldunorde Gipuzkoako Kopa Txapelketan

Senior Emakumezkoen Lauko Taldeak ezin izan zuten Gipuzkoako Kopako finala irabazi. Elgoibartarrek 16-27 galdu zuten Aiala Zarautz taldearen aurkako finala, Hondarribian. Finala galdu arren, Sanloko taldeak lana eman zion Zilarrezko Mailan diharduen Zarautzko taldeari. Honenbestez, amaitu da denboraldia Laukorentzat. Sanloko gainerako talde, guraso eta laguntzaileekin batera Sanlo Festan agurtuko dute denboraldia, datorren ekainaren 22an.

Paella jan herrikoi baten bueltan agurtu zuen C.D. Elgoibarrek denboraldia



Paella jan herrikoi baten bueltan, eta jokolari aipagarrienak sarituta agurtu zuen denboraldia C.D. Elgoibar futbol klubak, joan den zapatuan, Maalako parkean. C.D. Elgoibar futbol klubaren maila eta talde bakoitzean gehien nabarmendu diren jokalariek saria jaso zuten bazkalostean. Jokalari erregularrenak eta konpromiso gehien erakutsi dutenak saritu zituzten (goiko argazkian). Sarituen izen abizenak *barren.eus*-en.

Batzar nagusia ekainaren 20an

2018-2019 denboraldia erabat bukatzeko, Batzar Orokorra egitea falta zaio C.D. Elgoibari. Ekainaren 20an, eguena, egingo dute, Kultur Etxeko hitzaldi gelan, 19:00etatik aurrera.

Mintxeta taldeko neskek zilarra irabazi zuten Gipuzkoako taldekako alebinen txapelketan



Gipuzkoako taldekako alebinen atletismo txapelketa jokatu zuten aurreko asteburuan Tolosako Berazubi estadioan, eta Mintxeta Atletismo Taldeak bi talde aurkeztu zituen lehiara, nesken taldeak biak. Talde batek bigarren egin zuten 69 puntu batuta, eta 11. postuan sailkatu zen bigarrenagoa, 23,5 punturekin. Guztira hamahiru talde lehiatu ziren. Atleta elgoibartarrek eginiko markak *barren.eus*-en.



Pala txapelketetako finalak ekainaren 21ean jokatu dituzte

Kalegoen plazako frontoian jokatzen diharduten pala txapelketak azken txanpan dira. Aste honetan jokatu dituzte gizonezkoen finalerdiak eta hurrengo martitzenean (18:30) jokatu dituzte emakumezkoenak. Finala ekainaren 21ean, barixakua, izango da, 18:00etatik aurrera.

Udaberri Xake Txapelketako finala

Markel Kerexeta eta Jon Esnaola ailegatu dira V. Udaberriko Xake txapelketako finalera. Kerexetak Jabi Muñoz i irabazi zion finalaurrekoan eta Esnaolak Mikel Leon kanporatu zuen. Kopa txapelketan, berriz, Iker Ruiz da finalerako sailkatu den lehen xakelaria, Julen Agirreri irabazi eta gero. Astelehenean jokatu dute bigarren finalerdia, Eneko Alberdi azpeitiarrak eta Aitor Fernandez elgoibartarrak. Finalak, kopakoa zein ligakoa, ekainaren 20an jokatu dituzte Iriondo tabernan, 18:30ean.



LANA.....

Eskaerak

Adinekoak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Garbiketa lanetarako ere prest nago.

☎ 632 796 081

Adinekoak zein umeak zainduko nituzke. Ospitalean gauak egiteko eta etxeko garbiketarako egiteko ere prest nago.

☎ 631 822 545

Edozein lan egiteko prest nago. Adinekoak zaindu, eraikuntza lanak...

☎ 631 736 770

Edozein lan egiteko prest nago. Adinekoak zaindu, eraikuntza lanak...

☎ 632 786 847

Adinekoak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan.

☎ 688 735 551

Adinekoak eta umeak zaintzeko, erro-pak litzeko eta sukaldari laguntzaile lanetarako prest nago. Esperientzia daukat.

☎ 602 047 812

Adinekoak eta umeak zainduko nituzke.

☎ 604 300 582

Umeak edo adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan.

☎ 643 374 471

30 urteko esperientzia duen zaintzaile euskalduna, adinekoak zaintzeko prest. Titulua daukat.

☎ 660 511 781

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Etxeko langile moduan edo orduka.

☎ 697 665 452

Banaketa lanak egiteko edo portalak garbitzeko prest nago. Esperientzia daukat harrera lanetan.

☎ 688 698 854

Edozein lan egiteko prest nago. Orduka edo jardunaldi erdiz. Erreferentzia onak eta esperientzia ditut.

☎ 688 712 075

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. Orduka edo asteburuetan. Garbiketa lanak egiteko ere prest nago.

☎ 631 870 590

Adinekoak zainduko nituzke. Orduka, asteburuetan eta gauaz ere bai.

☎ 632 229 972

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Etxeko langile moduan edo asteburuetan. Esperientzia-duna.

☎ 631 288 512

Umeak edo adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan.

☎ 612 531 623

Umeak edo adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan.

☎ 632 116 534

Adinekoak zainduko nituzke, arratsaldeetan. Esperientzia.

☎ 685 185 462

Adinekoak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest nago.

☎ 650 152 866

Adinekoak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Arratsaldean edo gauaz.

☎ 690 134 485

Arotz edo pintore lanetarako eta adinekoak zaintzeko prest nago. Arduratsua eta fidatzena naiz.

☎ 617 773 202

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. Etxeko langile moduan edo orduka.

☎ 612 422 256

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. Etxeko langile moduan edo orduka.

☎ 602 843 984

Orduka egingo nuke lan. Umeak zaintzen esperientzia daukat.

☎ 612 202 116

Lan bila nabil. Adinekoak zaintzen esperientzia daukat.

☎ 617 810 065

Adinekoak zainduko nituzke. Esperientzia daukat.

☎ 632 875 808

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat.

☎ 612 250 984

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest nago. Orduka, zein asteburuetan.

☎ 678 112 785

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Etxeko langile moduan ere bai. Berehala hasteko prest.

☎ 644 558 390

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest nago. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. Orduka.

☎ 612 296 098

Eskaintzak

Bi ume zaintzeko pertsona bat behar da, irailetik aurrera. Asteleheneetik ostiralerara, 8:00etatik 9:00etara eta 16:30etik 17:40ra.

☎ 653 745 992

ETXE BIZITZAK.....

Etxea hartuko nuke alokairuan. Lan kontratua daukat.

☎ 632 587 760

BESTELAKOAK.....

Urrezko kate bat aurkitu dut Aita Agirre plaza inguruan.

☎ 943 748 864

KINTOAK.....

1954koen kinto ospakizuna, uztailearen 6an. 13:00etan luntxa, Usoa tabernan; 14:00etan argazkia; 14:30ean bazkaria eta musika, Sigman. 60 euro sartu, Laboral Kutxako kontu honetan, ekainaren 21erako: ES62 3035 0007 29 0071137526. Animatu!

1947an jaiotako kinto bazkaria, ekainaren 8an. 13:30ean argazkia, Kalegoen Plazan. Jarraian, Ibai Ondo tabernan luntxa. 14:45ean bazkaria Sigma jatetxean. 65 euro sartu behar dira, kontu honetan, ekainaren 1erako: 3035 0007 24 007 1063126 (Laboral kutxa).

☎ 647 647 270 (Camilo Otero)

☎ 616 048 946 (Pedro Bergara).



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas
Euzko Alkatekideen Elkarte Nazionala



ROSA Mª PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Jakin nahiko nuke eskailera-zuloko hormak estali edo berritzeko zer tramite egin behar diren eta ea berrikuntza-obra horiek hastea badagoen azkeneko batzarrera agertu ziren etxejabeen onespenerekin.

Zuk diozun obra horiek berrikuntza-lanak dira, ez eraikinaren kontserbaziorako obrak. Berrikuntza-lanak elementu komunetan aldaketa batzuk egiteko izaten dira, baina ez dira ezinbesteko obrak. Aldiz, besteak eraikinaren osotasuna zaintzeko obrak dira, eta horregatik dira derrigor egin beharrekoak.

Berrikuntza-lanen artean egokiak eta luxuzkoak daude. Lehenengoak eraikinaren sorreratik ez zituen prestazioak lortzeko aukera ematen dute, edota eraikina bera erosoagoa edo osatuagoa egiten dute bertan bizi direnentzat, beti ere eraikinaren ezaugarriak eta ingurua aintzat hartuta. Luxuzkoak zeintzuk diren zehaztu beharrik ez dago.

Ondorioa: zure kontsultaren erantzuna eskailera-zuloko hormen erreforma-motaren eta aipatu ditudan inguruabarraren arabera da. Ez badute preziazio subjektiboaren muga gainditzen, legez exijitzea egongo da. Obra horren kostuak hiru hileko gastu orokorren zenbatekoa baino handiagoa bada, obrari baietza eman diotenean ordaindu beharko dute eta kontra agertu direnak salbu egongo dira.





Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **txa-peldun!** 10 urte biribil! Zorionak, Endika, familia-koen, eta bereziki, Markel eta Danelen partez.



Zorionak, **Mikel**, asteartean urtetxo bat egingo dituzulako. Etxekoan, eta bereziki, Inigoren partez.



Zorionak, **Maria**, bihar 8 urte egingo dituzulako. Jarraitu beiti bezain alai. Muxu bat familiakoan partez.



Zorionak, **Elene**, asteartean 5 urte beteko dituzulako. Mila kilo zorioan etxekoan, eta bereziki, ahizpa Sararen partez.



Zorionak, **Lander**, atzo 8 urte egin zenituzulako. Oso ondo pasatu genuen. Muxu asko familiakoan partez.



Zorionak, **Maitane**, 12 urte egin dituzulako. Etxeko guztion partez, muxu handi bat, sorgintxo!



Zorionak, **Izar eta Nahia**, 6 eta 10 urte betetzen dituzulako. Ondo pasa eta muxu pila bat etxeko printzesei.



Elgoibarren, 2019ko ekainaren 8a

Mila esker 1947an jaiotakoan ospakizunera etorri zineten guztioi. Oso ondo pasatu genuen.

Erretratu bakarreko agurra: 4'50€

Argazki bikoitza: 7€

Hirukoitza: 9€

Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3'50€

Argazki bikoitza: 6€

Hirukoitza: 8€

Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00etarako)

baino lehen ekarri behar dira

BARRENeke bulegora,

edo barren@elgoibarkoizarra.eus

e-postara bidali.

 **Jarri ezazu zure publizitatea**
BARREN astekarian edo
www.barren.eus webgunean

943 744 112
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

BARREN Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

IKASBAI AKADEMIA **AURREMATRIKULA EPEA**
IKASGO ACADEMY **ZABALIK**
2019-2020
667 261 248
(Leire)

Basarte 13, behea · Elgoibar
akademialelgoibar@gmail.com

- INGELES ERREFORTZUA
- CAMBRIDGE AZTERKETAK
- TALDE TXIKIAK
- LH ETA DBH
- GAI GUZTIAK
- EUSKARA ERREFORTZUAK

 **LAGUNAK**
colchonera textil hogar

BEHAR DUZUN HORI
NEURRIRA JOSIKO DIZUGU!

- Neurriera egiten ditugu estore, gortina, panel japoniarrak...
- Tapizatuak egiten ditugu, sofa, eserleku eta oheburutan.
- Ohialetan aukera zabala.

Bisita gaitzazu!

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com



14 BARIKAKUA

18:30 Teo Martinez Gorrotxategiren argazki erakusketa. *Nostalgia y Vanidad*. Ongarri Argazki Taldeak antolatuta, hilaren 29ra arte, Kultur Etxeko erakusketa gelan.

19:00 Hitzaldia. Transexualitatea aniztasunaren adibide. Ander Iriarte gazte transarekin tertulia. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

20:00 2018an Palestinako itzulera martxan hildakoen omenezko ekitaldia. Irudi bortitzak ikusiko direla aurreratu dute antolatzaileek. Biktimen argazkiak jarriko dituzte.

22:00 BirakaTube. Biraka dantza taldearen emanaldia, Mendaroko frontoian.

15 ZAPATUA

10:00 Mintxetako igerilekuen irekiera. Irailaren 15era arte egongo dira zabalik.

12:00 Udal Gobernua osatzeko udalbatza Elgoibarko udaletxean.

13:00 Udal Gobernua osatzeko udalbatza Mendaroko udaletxean.

18 MARTITZENA

19:00 EHBilduren herri batzarra. Hauteskundeen balorazioa, taldearen egituraketa eta aurrera begirako asmoak landuko dituzte. Kultur Etxeko sotoan.

17 ASTELEHENA

17:30 Hitzaldia: 'Alzheimerrarekin elkar-bizi'. Afagi, Gipuzkoako Alzheimerraren elkarteak eta Jubilatuen Biltokiak antolatuta. Afagiko Felix Peña eta Koldo Aulestia izango dira hizlariak, eta moderatzailea, Begoña Elizondo Debabarreneko Afagiko kidea.

19:00 Elkarretaratzea. Pentsio duinen alde. Kalegoen plazan.

19 EGUAZTENA

19:00 'Erraiak' dokumentala eta zuzendariarekin elkarrizketa. Tertuliak programaren ikasturte amaierako ekintza. Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Antolatzailea: Elgoibarko Izarra.

19:00 BirakaTube. Biraka dantza taldearen emanaldia, Herriko Antzokian.

20 EGUENA

19:00 BirakaTube. Biraka dantza taldearen emanaldia, Herriko Antzokian.

21 BARIKAKUA

18:00 Pala txapelketako finalak, Kalegoen plazan.

18:30 Gararock jaialdiaren kartelaren aurkezpena Mendaron, Herriko Enparantzan.

22:00 Deabru Beltzak taldearen 'Les tambours de feu' ikuskizuna Mendaron, Herriko Enparantzan hasita.

19:00 Pintxo lehiaketa. Sustapen Ekonomiko Sailak antolatuta.

Ekigain

19:00 Elgoibarko Izarrak antolatuta, udari ongi-etorria. Maalatik Sallobentera oinez joango dira.

20:30 Afari-merienda.

21:45 Suaren erritua.

22:30 Saltoak.

23:00 Etxerako bidea, oinez.

EUSKARA SUSTATZEKO UDALAREN DIRULAGUNTZAK

Eskaerak aurkezteko azken eguna urriaren 31 izango da:

- UEUK, EHUK eta Hik Hasik euskara hutsean antolatutako ikastaroak egiteko dirulaguntzak.
- Elgoibarko establezimenduetako errotilu nagusia euskara hutsean edota irudi korporatiboa euskaraz edo ele bietan jartzeko dirulaguntzak.
- Euskarazko irakaskuntzaren aldeko jaietarako dirulaguntzak.
- Herriko enpresetan euskararen erabilera bultzatzeko dirulaguntzak.
- Elgoibarko Udal Euskaltegitik kanpo euskara ikasteko dirulaguntzak, baita barnetegietarako ere (laguntza hauek eskatzeko azken eguna irailaren 26a izango da).

Eskabideak eta beharrezkoak diren agiriak aurkez ditzakete interesdunek HAZen, Herriarren Arreta Zerbitzuan (Santa Ana kalea 2, behea), edota telematikoki Udalaren webguneko Herriarren Atarian. Informazio osagarria lortu nahi dutenek Euskara Sailean izango dute horretarako aukera (Tel.943 744 366, euskara@elgoibar.eus).



Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez: 09:00-20:00

Iluntzean: 20:00-22:00

Larunbatak: 9:00-14:00 (*)

14 BARIXAKUA	15 ZAPATUA	16 DOMEKA	17 ASTELEHENA	18 MARTITZENA	19 EGUAZTENA	20 EGUENA	21 BARIXAKUA
Egunez Etxeberria	Egunez Fernandez Barrenetxea	Egunez Fernandez	Egunez Yudego	Egunez Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez Ibañez	Egunez Garitaonandia
Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Fernandez	Iluntzean Fernandez	Iluntzean Yudego	Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Yudego	Iluntzean Garitaonandia

* Fernandez:
Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gabez: 22:00-09:00
Zulueta. San Agustin kalea, 5 (Eibar)
943 820 498

TRINITATEAK ELGOIBARREN

14 BARIXAKUA

19:00 Musika Eskolako talde finkoen kontzertua. Maalako parkean. Antolatzailea: Inazio Bereziartua Musika Eskola.

22:30 Elgoibarko Udal Musika Bandaren kontzertu berezia. Kalegoen plazan. Zuzendaria: Gorka Mujika.

1. *Así habló Zaratustra* (Richard Strauss).
2. *Bohemian Rhapsody* (Freddie Mercury)
3. *River dance* (Bill Whelan)
4. *Kantaldia* (Iñaki Urkizu)
5. *Txorian txori* (M. Laboa, mold. I. Urkizu).
6. *Libertadores* (Oscar Navarro)
7. *Obertura 1.812* (P.I. Tchaikovsky)

15 ZAPATUA

10:00 - 17:00 Trinitateetako azoka berezia. Antolatzailea: Debemen.

10:00-14:30 Elgoibarko baserrietako produktuen salmenta, Lekuederren.

10:00-17:00 Elgoibarko baserrietako abereen erakusketa. Trenbide kalean.

11:00 Kalitatezko produktuen dastatzea. Lekuederreko karpan. LumaGorri oilaskoa eta Basatxerri txerrien sahieskia eta hirugiharra. Ordu berean, Elgoibarko baserrietako sagardo lehiaketa, Zazpiki Kultur Elkarteak antolatuta.

13:00 Emakumezkoen Euskadiko trontza txapelketa, Kalegoen plazan. Sigma Probaleku Elkarteak antolatuta.

14:30 Baserritarren anaiarteko bazkaria, Lekuederren.

18:00 Kalejira, Kalegoen plazatik. Mautitxa txarangarekin eta panpin erraldoiekin.

22:00 Uztarri Motzeko Trinitate Saria, Sigman. Idi bakarreko proba.

23:00 Nagusien Danborrada, Kalegoen plazan.

24:00 Trinitate gaueko erromeria, Sutegixan. Elgoibarko Gazte Asanbladak antolatuta.

16 DOMEKA

9:00 Diana, Udal Txistulariekin.

10:00-14:30 Artisau azoka, Lekuederren.

11:00 Meza Nagusia, Parrokiako Abesbatzarekin, San Bartolome parrokiaren.

12:00 Haurren danborrada. Antolatzailea: Inazio Bereziartua musika eskola.

17:30 Erraldoi eta buruhandiak, zezenzikletekin eta Elgoibarko dultzaineroekin.

17 ASTELEHENA

22:00 Uztarri Motzeko Trinitate Saria, Sigman. Idi bakarreko proba.

TRINITATEAK MENDARON

14 BARIXAKUA

19:30 Bizi Poza txarangarekin kalejira.

15 ZAPATUA

17:00 Zuhaitza jasotzea, kanpai jotzea eta txapliguak.

16 DOMEKA

10:00 Mendaroko txistularien kalejira.

11:30 Meza nagusia, elizako abesbatza eta Ameikutz musika eskolakoen partaidetzarekin.

Ondoren, trikitalariak.

12:30 Herri kirolak.

17 ASTELEHENA

11:00 Meza, Trinitateko basilikan.

12:00 Ikastolako haurren bertso saioa.

Ondoren, Ansorregi eta Larrañaga trikitalariak.

14:30 Herri bazkaria, Toki Alai jatetxean.

20:30 Herri afaria, Aizpe elkartearen. Ansorregi, Larrañaga eta bertsulariekin.



Manu Sanchez

Izaro Etxegibel



Txikitan esan zidaten tximeleten bizitzak egun bakar bat irauten duela.

Sinistu egin nuen orduan. Egia ote da? Ez dut horrela uste orain. Lasaiago nago; gupida nituen umetan, lorez lore, hegan, ikusten nituenean: hain polit, hain hauskor. Gezurra da, oraintsu jakin dut; denbora gehiagoz bizi daitezke: astebete, hilabete... espeziearen arabera. Laburra da, benetan, bizitza. Ez kalaputxiena bakarrik; gizakiona are laburragoa, gure tamainari eta eurenari proportzionalki erreparatzen badiogu, adibidez. Baina, konturatzen al gara horretaz? Gutxi

iraungo balu bezala bizi al dugu bizitza?

Tximeleta zuri bat ikusten baduzu, zorte ona izango duzu; gauean etxera sartzen bazaizu, berriz, berri txarrak datoz zurerara... Horiak dira, zinez, ia beti ikusten ditudan mitxeletak, ltoizen kantukoak bezala ...*milaka tximeleta beilegi uhinen gainetik*... Ez delako bizitzan guztia hain muturrekoa; ez erabat txarra, ez guztiz ona.

Boteretsuak benetan txirpilotak, mitxoletak, pinpilinpauxak, pinpirinak, ingumak, kalaputxiak, txiribiriak, tximirrikak, jainkoiloak, txoletak, sorginiloak, mitxirrikak... Atsotitz txinatarrak dio tximeleta baten hegalean mugimendua munduaren beste muturrean sentitu daitekeela; tximeleta baten hegalean

mugimendua munduaren beste muturrean tsunami bat eragin dezakeela; tximeleta baten hegalean mugimendua soilak mundua alda dezakeela, alegia. Boteretsu bilakatzen gaitu gutako bakoitza "tximeleta efektuak". Txikieriek eta txikitasunek egiten dituztelako ekintzak handi. Norberak egiten dituen aldeketek alda dezaketelako mundua.

Pozik jartzen naiz, oraindik, zuri koloreko mitxirrika bat albotik pasatzen zaidanean. Pozik nagoenean, tximeletak sentitzen ditut sabel barrenean. Ez ditzaugun gure ondotik joaten utzi. Egoerarik lartzenean ere, ez etsi inoiz, *berriz pasatuko dire tximeleta bi aidien*... Bizi gaitezen, bizi; nire txikitako tximeletenak bezala, gure bizitzak ere egun bakar bat iraungo balu moduan.

"Gutxi iraungo balu bezala bizi al dugu bizitza?"

ERRAIK

dokumentala
Elgoibarren

Kobazuloetatik datorkigun oihua.

Hitzik gabeko hizkuntza.

Erraietatik ateratzen zaiguna.

Ekainak 19, asteazkena • 19:00 • Kultur Etxeko hitzaldi-gelan



EKIGAIN jaia

Sua, ura, natura eta ... GU, urteko egunik luzeena ospatzeko

Ekainak 21, ostirala

Egitasmoa:

- 19:00 Maalako parkean elkartuko gara, handik Sallobentera oinez joateko.
- 20:30 Afari-merienda.
- 21:45 Suaren erritua.
- 22:30 Saltoak.
- 23:00 Etxerako bidea, oinez.

Oharrak:

- Oinez joateko aukerarik ez duzuenontzat, 20:00etan izango da hitzordua Sallobente-Ermuaranen.
- Afari-merienda norberak eraman behar du, baina txosna jarriko dugu edariak erosteko.
- Frontala edo kopeta-argia eramatea komeni da, bueltarako.

Antolatzailea:



Babedea:



HURRENGO BOE SUSTAPENA ELGOIBAR OLASOATEN



IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK
EKAINAREN 24ra ARTE



943 31 68 68

www.sukia.com

 **sukia**

Zure etxean zaude **Estás en tu casa**

Esta información puede ser modificada por razones técnicas o comerciales. / Informazio hau aldatu egin daiteke tekniko edo komertzialengatik.